


KALIGRAFIA ERAIKITZEKO SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK (DVDa)

EGILEA: IRUNE IBARRA

EHU-KO SARE ARGITALPENAK (2009)

ISBN: 978-84-692-4070-0



AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| 1. HIZKUNTZA IDATZIA - IDAZKERA | 3 |
| 2. IRAULTZA IRAKASKUNTZAN | 4 |
| 3. KALIGRAFIA AIREAN | 7 |
| 4. KALIGRAFIA ERE ERAIKI EGITEN DA | 9 |
| 5. GAINKARGA KOGNITIBOA | 10 |
| 6. GILTZARRIA: SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK | 12 |

KALIGRAFIA ERAIKITZEKO SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK

1. HIZKUNTZA IDATZIA - IDAZKERA

Idazkera edo idazkera-sistema notazio alfabetiko bat da, eta hainbat osagai ditu: letrak, horien konbinazio-arauak, puntuazio-markak, ortografia... (alfabetikoak ez diren karaktere eta hitzarmen grafikoak). Idazkera hizkuntza idatzian erabiltzen da: iragarkietan, eskutitzetan, olerkietan, ipuinetan, antzerkian..., hau da, idazteko modu edo estilo bat egoten da. . Idazkera hizkuntza idatziaren atal bat dela esan daiteke.

Ikusi HH5eko ume batek kontatutako istorioaren pasarte bat.



Lehen, hizkuntza idatziaren irakaskuntzako lehen urteetan idazkera-sistema irakatsi baino ez zen egiten. Gainera, idazkera-sistemaren alde mekanikoa (kaligrafia, kodea) zen ardatza: eredu ahalik eta ondoen kopiatu behar zen.

2. IRAULTZA IRAKASKUNTZAN

Azkeneko hogeita hamar urteetan iraultza antzeko bat gertatu da: hizkuntza idatziaren jabetza garapeneko ikasketen esparruan sartu ez ezik, diziplinarteko interes-gune bilakatu da. Ikerketa kognitiboei, soziokulturalei, eraikitzaileei (psikogenetikoei), (Ferreiro, Teberosky, Goodman...) didaktikoei, hizkuntzalaritzazkoei... esker, idaztean egiten diren eragiketak, hipotesiak, prozesuak... aztertu izan dira. Idazleek eta haien arteko harremanek protagonismoa hartu dute ; haurrak oso txikitatik idazle bihurtu dira, eta hizkuntza idatzia bere osotasunean kokatu ahal izan da.




Emilia Ferreiro, Ana Teberosky eta Yetta Goodman

Adibidez, ikerketa psikogenetikoek ekarpenetako bat izan da deskribatzea idazkera alfabetikora arte umeez nola eraikitzen duten idazkeraren esanahia. Haurrak munduarekiko dituen ideiak umeez eraiki, birformulatu, bere egin eta aldatu egiten dituen bezala, idazkera-sistemari dagokionez ere, garapen-prozesu eraikitzaile batean murgilduta egoten da.


Horrela, idazkera ezagutza-objektu bat da² (Ferreiro, 1986:16) haurarentzat. Hizkuntza idatziaren eta ahozko hizkuntzaren arteko lotura ez da bat-batean atzematen. Forma grafiko konbentzionalak eta horien konposaketa-arauak ulertzeko asmoz, haurrak hipotesiak egiten ditu. Munduko hizkuntza desberdinetako haurretan garapen-maila zehatz batzuk daudela frogatu da.

Idazkera objektuaren ezaugarriekin lotu dezake haurrak hasiera batean. Hots, handia den animalia letra askorekin edo handiekin idatziko du, eta txikia dena letra/sasiletra gutxirekin edo letra txikiekin. Tomatea idazteko esan eta kolore gorritz idatz dezake, eta pepinoa berdez.

Kasu honetan hartz handiari marrazki handiagoa dagokio txikiari baino



¹² FERREIRO, E. (1986): "The interplay between information and assimilation in beginning literacy" in Yetta Goodman: Emergent literacy. Writing and reading. Ablex Publishing Corporation, New Jersey.




HH4ko ume honek tomatea idazteko kolore gorria aukeratu du.

Soilik bokaleak idazten direla pentsa dezake; silabaka idatz dezake...



... pixkanaka, prozesu batean, idazkerak, grafema-fonema loturarekin zerikusia duela konturatzen den arte.




Letra-soinuaren aurkikuntzak (hots, alfabetikoki idazteak) ez du esan nahi idazkeraren hitzarmen guztiak ezagutzen dituenik. Beste “arau”, “betebehar”, hitzarmen grafiko batzuk gelditzen dira antolatzeko, ulertzeko, eraikitzeko oraindik: ortografia, puntuazioa... eta kaligrafia (hitz-tarteak barne).

Begiratu konbentzionalak ez diren hitz-tarte hauei:



Haurra kaligrafiaz nola jabetzen den ikertu gabe dago, eta ekarpen batzuk egiten saiatuko naiz lan honen bidez.



6 urteko neskatu honek bere ortografia dauka

Ikuspegi bat zein bestea erabili (edo tartekoa erabili), umeeek idatzi idazten dute, baina beharbada ez modu argian eta eraginkorrean.

Hizkuntza idatzia idazkera eta kodea baino kontzeptu zabalagoa dela onartuta ere, kaligrafiaren gaia (haren eraikuntza) airean gelditu da konstruktibisten ikerketen artean. Konstruktibistek orain dela urte batzuk aztertu gabe utzi zuten idazkeraren alde figuratiboa edo kaligrafia; hau da, ez zuten landu ere egin, bigarren mailakotzat hartzen baitzuten. Garrantzizkoa idazkera-sistemaren esanahiaren eraikuntza iruditu zitzaion. Hara zer zioen Teberosky-k⁵ (1993):

“Garrantzitsua iruditzen zaigu hizkuntzaren ikerketa ikuspegi konstruktibotik planteatzea, baina alderdi figuratiboa ahaztu gabe. Eskolatzearen hasieran funtsezkoa da haurrek hizkuntza idatzia ikertzeko tarte bat edukitzea (hizkuntza idatzia eta idazkera-sistema —edo idazkera—). Poliki-poliki modu konbentzionalean idatziz joango dira, hau da, modu alfabetikoan. Modu alfabetikoan idaztera iristen direnean, orduan hasi behar dugu, gure ikuspegiaren arabera, alderdi figuratiboari garrantzia ematen (ortografiari, hitzen banaketari, grafiari...)”.

⁵ TEBEROSKY, A. (1992): *Aprendiendo a escribir*. Ice/Horsori. Bartzelona.

4. KALIGRAFIA ERE ERAIKI EGITEN DA

Eskuz idazten ikasteen, letra-soinuaren eraikuntza egiten den bezala, alde figuratiboaren (kaligrafiaren) eraikuntza ere egiten da. Albo batera utzi den kaligrafiaren gaiari heltzeko garaia iritsi dela iruditzen zait. Beharbada, Teberoskyk dioen bezala, zentzuzkoagoa da letren forma jorratzea letra-soinua eraiki ondoren (idazkera alfabetikoa egin ondoren, Lehen Zikloan gutxi gorabehera).

Kaligrafiaren eraikitze horrek bi alde ditu: *alde kognitiboa* (umek zer uste duten hitz-tarteei, letren formari, loturari... buruz) eta *praxia* (motrizitatearen garapena, idaztresnarekiko egokitzapena eskema motorren automatizazioa...).

Eraikitze horren arrastoak bilatuko ditugu Lehen Zikloan, eta orientabide didaktikoak ematen saiatuko gara horiek lantzeko.

DVD honetan kaligrafiaz ari garenean, ekoizpena eta argitasuna uztartzen saiatuko gara, *Hik Hasiko* artikulua eta ikastaroetan azalduko "idazkera harmoniko"etarako irizpideei jarraiki⁶. Helburuak eta atalak hauek izango dira: hitz-tarteak (Antolaketaren barruan), letra xehez idaztea (Formaren barruan), letren arteko loturak (Jarraitasunaren barruan). Idazkera harmonikoak garatzen hasteko urratsak egingo ditugu.

⁶ Begiratu idazkera harmonikoen erreferentzia *Hik Hasiko* artikuluetan eta Euskadiko Grafologia Elkartearen II. Kongresuko txostenetan.

- Irene Ibarra (1999): "Idazkera ona, "txarra", ulergarria..." in *Hik Hasi* euskal heziketarako aldizkaria, 35. zenbakia, 39.-42. or.

- Irene Ibarra (1999): "Idazkera harmonikoak ahalbidetzen" in *Hik Hasi* euskal heziketarako aldizkaria, 36. zenbakia, 35.-38. or.

- Irene Ibarra (1999): "Idazkera harmonikoak ahalbidetzen II" in *Hik Hasi* euskal heziketarako aldizkaria, 36. zenbakia, 36.-38. or.


- Irene Ibarra (1999): "Idazkera harmonikoak ahalbidetzen III" in *Hik Hasi* euskal heziketarako aldizkaria, 36. zenbakia, 30.-32. or.

- Irene Ibarra (2002): "La armonía en la escritura", in *Euskadiko Grafologia Elkartearen II. Kongresuko txostenen memoria*, 161.-175. or., Bilbo.

5. GAINKARGA KOGNITIBOA

1967. urtean kaligrafia ikasketa-planetatik desagertu zen, Espainiako Estatuan. Inplizituki bada ere, lehen zikloan lortu behar izaten den helburuetako bat izan ohi da.

Begiratu aintzinako kaligrafia koaderno honi



Badirudi zeharka landu behar dela kaligrafia: hau da, zentzua duten eta komunikatzea helburu duten ariketen bidez, inolaz ere ez jardueren ardatz nagusitzat hartuta. Egun, idazkera komunikaziorako tresna bat den neurrian, idazkera ulergarria lortu behar dute haurrek, baina, bide batez, benetako testuen bidez. Hitzak banantzeko, letra xehez idazteko, lerroak zuzen egiteko, bazterkiak uzteko... eskatzen da, baina hori lortzeko bideak ez daude oso argi, sistematizazio gutxi egoten da, eta irizpideak aldatu egin daitezke irakasle batetik bestera. Gainera, hizkuntza idatziaren barruan arlo asko dago lantzeko, eta lehentasunak jartzen dira; hala, kaligrafia askotan baztertuta gelditu daiteke

Benetako testuen bidez kaligrafia lantzea konplexua izan daiteke. Izan ere, gaztetxoaren artean gerta daiteke idazlan bateko zereginean gainkarga kognitiboa egotea. Psikologia kognitiboko ikerketen arabera, Epe Luzeko Oroimenean eduki semantikoak aktibatu behar dira, antolaketa linguistiko lineal batean transkribatu... Gramatika, lexikoa, ortografia... zaindu behar dira, eta, aldi berean, burmuinean asmoa eta entzuleak kontuan eduki. Dena aldi berean egin behar da, eta, alderdi batzuk automatizatuta eduki ezik, idazteko gogoia kolpetik desagertu daiteke.



Itsas-txakurra edo astoa?

Saxofoi-jotzailea edo aurpegia? ¹⁰

Marrazki hauetan bi figurak ikusteko ahalegin berezia egin behar dugun bezala, idazterakoan txikientzat zaila izan ohi da aldi berean forma eta hondoa zaintzea (hots, kaligrafia txukuna egitea eta konposizioa egitea). Ikasleari zeri erreparatzeko esaten diogun, arreta (burua eta bihotza) bideratuko du esaldi motara, testua letra larriz hastera edo *a* letra mugimendu jarraitu batekin egitera. Dena batera eskatuz gero, helburuen erdiak hurrengorako ahaztuta eduki ditzake, eta kontuan izan beharreko guztiei erreparatzea nekeza gertatuko zaio.

Hezitzaileak pausoka joaten jakin behar du, forma eta hondoa batera ez eskatzen eta forma edo kaligrafia bera ere pausoka lantzen (hitz-tarteak, letra-forma, loturak...). Ez da berdina igandean gertatutako albistea kontatzeko esatea edo, ulergarritasunaren mesedetan, *a* letra mugimendu bakarrarekin egiteko eskatzea.

¹⁰ <http://taniaramirez.com/tania/index.php?option=com_content&task=view&id=67&Itemid=56> [2009-I]

6. GILTZARRIA: SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK

Giltzarria (irtenbideetako bat) izan daiteke Hizkuntza irakasgaiaren barruan kaligrafiaren proiektua lantzea sekuentzia didaktikoen bidez. Ikasleari esperientzia polita eta iraunkorra gerta dakioke; aldi berean, tutoreentzat berritzailea eta motibagarria izan daiteke; lana errazagoa da, eta kaligrafia beste modu batean lantzea ahalbidetzen du.

Lehen ziklorako ezarritako gaitasunak (hitz-tarteak uztea, letra xehez idaztea eta lotura maila bat lortzea) hiru sekuentzia didaktikoren bidez landuko ditugu.

Sekuentzia didaktiko bakoitzean bi estrategia baliatuko dira (bi modutan egingo da lan):

1. Ikasleak **pentsatzen** jarriko ditugu kaligrafiaren inguruan (hots, hitz, hitz-tarte, letra-forma edo loturei buruz): Noiz uzten dituzue hitz-tarteak? Nondik hasten dituzue letrak? Nola elkartzen dituzue letrak?

2. **Automatizazioko ariketak** egingo dituzte ondoren hausnartutakoa praktikan jarritz.

Modu sistematiko batean egingo da lan: kaligrafiaren dimentsio edo genero bati lehentasuna emango zaio aldi bakoitzean.

“Akatsak” prozesu baten barruan ulertuko dira.

Beren artean hitz egingo dute, batak besteari lagunduko diote, taldean egin dutenaren inguruan hausnartuko dute.